



LARUNBATA, 2018
ABENDUAREN 15a
13.00etan

EZ DAGO JUSTIZIARIK
DENOK MADRILERA!
AUZITEGI GORENAREN AURREAN
(Villa de París Plaza)
<https://nohayjusticia.org/>

Estatu Espainiarrean Auzitegi Gorena, Auzitegi Konstituzionala eta Auzitegi Nazionala, abusuzkoa den legearen interpretazioa eginez, eskubide zibil eta politikoen urraketa diren ebazpenak ematen ari dira. Dinamika honek herritarrengan babesgabetasuna sortzen du eta alarma soziala areagotu, Botere Judizialaren lanarekiko konfiantza hasten joan delako.

Denon buruan daude arestian eman diren kasu eskandalagarriak (La Manada, Castor, Palma Arena, Nóos, Altsasuko gazteak, lapurtutako haurrak), adierazpen askatasuna era garbian urratzen duten epaiak (Valtòny, Pablo Hassel,..). Antzeko kasuetan, Estrasburgoko Justizia Auzitegira jo behar izan da, eta urte asko igarotakoan, azkenean epaia kaltetutakoen alde eman izan du, adibidez, Eusko Legebiltzarraren Mahairen kasuan, Egunkariaren aferan, erregearen argazkiak erre zituzten Gironako gazteen kasuan eta beste hainbestetan.

Karrera judizialean aurrera egiteko klienterismoan oinarritutako jardunbide desegokien erabilerak magistratuen kupula txiki baten iraunkortasuna ekarri du. Izan ere, administrazio judizialaren posizio altu honetarako izendapena ez zaie iritsi merezimendu profesionaleri esker, promozioa haien **atxikimendu ideologikoari zor zaio. **Izendapen mekanismo honek botereen banaketaren printzipioaren aurkakoa da, eta sistema demokratikoaren muinari iruzur egiten dio.** Izendapen hauek argi uzten dute Botere Judiziala frankismo garaiaerakiko haustura irudikatu dezakeen demokratizatorako urrats eraginkorrik egin ez duen boteretako bat dela.**

Europako Kontseiluaren GRECO¹ txostenak Espainiako Justiziaren funtzionamenduak duen anomalia hori ederki jaso du. Izan ere, jarraian kaleratutako lau txostenek **etengabeko praktika txarreatatik ohartarazpenak eta salaketak egiten dituzte.** GRECO taldearen txostenek Espainiako Justiziaren estamentu altuen alde baterako lerratze itsua argi erakusten dute, eta baita hori CGPJ² bezalako organo politizatu batek izendatzen dituelako gertatzen dela ondorioztatu ere.

¹ Ustelkeriaren aurkako taldea (akronimoa frantsesez sortua da: *Groupe d'États contre la corruption*, GRECO; gaztelaniaz *Grupo de Estados contra la Corrupción*)

² Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia (gaztelaniaz, *Consejo General del Poder Judicial (CGPJ)*)

Aldi berean, moxal legea, alderdien legea eta antzeko tresna juridikoen onarpen eta aplikazio irregular eta neurrigabeek eta espedienteak Auzitegi Gorenera edo Auzitegi Nazionalera besterik gabe eramateak hiritarren babes-gabezia dakarte eta indarkeriarik gabeko egoeran ulergaitzak diren salbuespeneko neurriak aplikatzea (baldintzarik gabeko kartzela, kargu publikorako gaitasungabetzea, disuasio-isun handiak, ondareen bahitura, lurralde konfinamendua...) errazten duten aitzakia dira. Ez da onargarria, halaber, kartzela-politikek familiei kalte eragiten dieten errepresio edo urruntze neurriak sustatzea. Jokabide gogor honen parean Botere Judizialak talde arrazista eta faxisten jarrera bortitzen aurrean (València, Blanquerna, ...) erakusten duen leunkeria kezagarria da eta hartzen ari den bide arriskutsuaz zer pentsatua ematen du.

Are gehiago, politikaren judizializazioak Gobernu espainiarrak Fiskaliaren bidez eredu sozio-ekonomiko alternatiboek eta disidentzia politikoari aurre egitea eta hiritarren partizipazio eta kontsulta mekanismoak debekatzea **ahalbideratu du**. Baina jarduketa judizial hauek eskubide zibil eta politikoen aurkako eraso larria dira eta demokraziaren kalitatea gero eta gehiago ahultzen dute.

Kontuan izan behar da Katalunian 1.200 pertsona baino gehiago inputatuak eta ikerketa pean daudela, eta horietatik 700 baino gehiago tokiko agintariak eta bestelako kargudun hautatuak direla. Azken hauei eskubide partikular eta kolektiboak larriki urratu zaizkie ekintza baketsuak eta ez-bortitzak aurrera eramateagatik hiritarrendandik jasotako agintea bete nahian. Epaiaketa oraindik ez badira egin ere, eta hortaz denek errugabetasunaren presuntzioa izateko eskubidea eduki, Justizia espainiarraren jardunak ondorio latzak ekarri ditu dagoeneko; baldintzarik gabeko kartzela, fidantzarik gabe, badaezpadako gaitasungabetzea, hauteskunderen emaitza desitxuratzten duten injerentziak instituzioen funtzionamenduan (Parlament-ean, udaletxeetan).

Jokabide horiek guztiak matxinada eta sedizioa bidegabeki leporatu zaien erbesteratutako kargu politikoak estraditatzeko Espainiako Justiziak igorritako estradizio eskaerari Europako herrialdeetako auzitegiek (Alemania, Belgika, Erresuma Batua) emandako erantzunekin kontrajartzen dira.

Arestian ere, **lurralde askotan Andaluzia, Madril, Errioxa, ... ezohiko auziak irekitzen ari dira** eta haietan protesta baketsuetan parte hartzen zuten pertsoneri ere kartzela zigorrak irekitzen ari zaizkie, protesta egiteko eskubidea eta adierazpen eta manifestazio askatasuna errespetatu gabe. **Beste adibide kezagarria greba eta manifestazioetan parte hartzen duten sindikalisten aurka kutsu frankista duen Zigor Kodearen 315.3 artikulua aplikazioa da**, honezkero 300 auzipetu ekarri dituen. Urradura hauek ezinezkoak dirudite epaitzen diren gertakarietan indarkeriarik ez zela egon kontuan harturik, eta are gehiago prozesu judizialean askatasuna izan duten Urdangarin, Rato edo Bárcenas bezalako pertsoneri emandako tratuaekin alderatuz gero.

Deigarria da **botere judizialak mantentzen duen inpunitate-politika, Frankoren diktadura garaian gizateriaren aurka egindako krimenak ez dituelako ez ikertzen ez epaitzen ere**. Zigorgabetasun-politika hau bi erataria sostengatzen du. Alde batetik, Buenos Aireseko Auzitegian bideratzen ari den Argentinako Auzia gisa ezagutzen den kasu penalaren izapidea etengabe oztopatuz, adibidez, atxiloketa aginduak eta estradizio eskaerak ukatuz eta akusatuei ikertze-deklarazioa hartzearen aurka agertuz. Eta, bestetik, Espainiako Estatuko Auzitegiaren aurkezten diren garai honekin lotutako kereila kriminalak izapidetzea ez onartuaz. Testuinguru honetan ulertzen da Antonio González Pacheco (Billy el niño) kereila ez onartua izana.

La Manada auzian emandako epaiak, eta haren modukoek, argi uzten dute Botere Judizialak oraindik ere ez duela onartu emakumeen aurkako indarkeria ez dela banakakoen arazoa edo afera pribatua, baizik eta dimentsio sozial eta politikoa duen gaia. Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen kontrako ukaziorik larriena da eta patriarkatuaren nagusitasunaren froga garbia, izan ere, indarkeria honen helburua emakumeek gizaki eta eskubide osoko hiritar gisa beren garapen osoa lortzerik ez izatea baita. Indarkeria matxista gizartearen gaitzik larrienetakoa da eta **Botere Judizialak trebatu egin beharko luke gai honekiko giza-sentikortasun handiagoa izateko** eta indarkeria mota hau errotik kentzen lagundu ahal izateko.

Auzitegietan arraza ezberdinekoa edo migratzaile direnei eskubideak nabarmenki urratzen zaizkie. Tamalez, estamentu judizialak ez du Zigor Kodearen 510 artikulua aplikatzen, hain zuzen ere, historikoki baztertuak izan diren taldeak (emakumeak, beltzak, ijitoak...) babesteko sorturikoa. Alderantziz, atzerritarrak edo beste arraza batekoak izateak susmagarri bihurtzen ditu.

Oraintsuko hipoteken kasuan, botere judizialaren erreakzio gaitasun aldakorra bankuen interesen aurkako epaia geldiarazteko Espainiako Justiziaren neutraltasuna zalantzan jartzen duen adierazle argia da.

Hau guztia dela eta, **EZ DAGO JUSTIZIARIK** eskubide hauen urraketa salatzeke giza gunea izan nahi du eta, horregatik, Espainiako Botere Judizialaren ageriko irregulartasunak salatzeke, eremu askotatik bultzatutako mobilizazio bateratua egitea proposatzen dizuegu.

Honela, abenduaren 15ean, Madrilen, Auzitegi Gorenaren eta Auzitegi Nazionalaren aurrean manifestatzeko deia egiten dugu, Francoren erregimenetik zamaten gaituen defizit demokratiko larriak are eta bistago jartzeko.

Botere judizialak eliteak babesten dituela eta bitzita politikoaren judizializazioa eraldatzailea izan nahi duen eta 1978 erregimena gainditzeko asmoz sortzen den edozein desadostasun politikoaren aurka sistematikoki aplikatzen den mekanismoa dela agerian jarri nahi dugu. Hau guztiagatik, orain dela 40 urte **Monarkia babestu, oligarkiaren pribilegioak betikotu, eta Espainiako hiritarren eta Espainiar Estatuko nazio ezberdinen eskubide zibil eta politikoak murriztu nahi zituen trantsizioa ezarri zela** salatzen dugu.